

## LA MUJER INDUSTRIAL EN EIBAR.

Durante la estancia que, en el presente verano, ha hecho la Côte en la Granja, ha llamado, extraordinariamente, la atención del público un plato de hierro, de grandes dimensiones y de singular belleza, expuesto por la reputada artista Sra. D.<sup>a</sup> Felipa Guisasola, la misma que obtuvo, el año último, gran medalla de honor en la Exposición Minera de Madrid.

El trabajo de esa verdadera obra de arte es precioso, sobresaliendo su correcto dibujo y unos admirables bajo-relieves en plata.

También en esta Capital de Guipúzcoa se ha abierto un gran establecimiento, en la calle de Hernani, número 3, que constituye un verdadero museo de las joyas que se fabrican bajo la dirección de esa digna discípula del gran Benvenuto Cellini.

Allí se admiran los progresos en el arte del damasquinado, que tanto honra á los inteligentes artistas de la industriosa villa de Eibar.

Allí se ve que ya el artista no se contenta con incrustar oro y plata en el hierro, formando variados y artísticos conjuntos, sino que se ha combinado el damasquinado en el tallado en hierro, oro y plata, constituyendo así obras de mérito y de gusto perfectamente depurado.

---

1521

### GRAZIYAREN GARAIMENA SAN-IGNACIO-GAN <sup>1</sup>

Egun da gabaz zauriyetatik  
Chirriyan odel berriya,  
Oyan zegoan galai Iñigo  
Iya iltzeko etsiya:  
Ara nola zan bere orduko  
Izketa-baten erdiya:

»Berriz Iruñ-a guazen, bear bada:  
»Etzat faltako gogorik:  
»Eibarri-arren nere belaun bi,  
»Onorea det osorik:  
»Nere onraren maitatunayak  
»Ez du izango ondorik.

(1) Neurtzaldi au irakurria izandu da Habana-ko alkartegi edo kolejio Belen-goan 1884-ko Mayatza-ren 22-an.

»Onra geyago nik izango det  
 »España-gatik iltzean;  
 »Nere izena azalduko da  
 »Gerrari danen gañean:  
 »Guazen bai berriz peliatzera;  
 »Guazen aurrera aidean.

»Ebaki, ebaki ezur koskorrak,  
 »Botak obeto sartzeko;  
 «Egiñ nai dana zanko biyetan,  
 »Leen-beziñ zuzen jartzeko;  
 »Ekiñ-kupira-gabe; zai nago?  
 »Miñ gogorrenak artzeko.»

Onelakōse pensakizunaz,  
 Eziñ-pasarik denbora,  
 Libururen bat irakurtzea  
 Etortzen zayo gogora;  
 Besterik ez-ta, Santuen on bat  
 Ekartzen zayo ondora.

Irakurtzen du... Urrengo gauban  
 Milla-kezka du buruban:  
 «¿Zer prochuz, dio, nere urteak  
 »Igaro ditut munduban?...  
 «¿Balioko dit gizonen onrak  
 »Eriyotzako orduban?...

»Nere barruban zer pasatzen dan,  
 »Neroni nago arritzen;  
 »Oi ez bezela, mugimentu bat  
 »Biyotzean zait asitzen,  
 »Argi-errañu zerukoi on bat  
 »Adimentuban argitzen.

»Ez da gizona, ez da gizona  
 »Betiko jayo lurrera:  
 »Mundu zoro au utzi dezadan;  
 »Guazen birtute-bidera:  
 »Kristau-bizitzak eramango nau  
 »Jainkoaz beti poztera.

»¿Zer balio dit mundu osoa  
 »Nere mendean jartzea,  
 »Aberastasun, onore, atsegiñ  
 »Nai diran danak artzea,  
 »Ori guzia izaten bada  
 »Nere animaren kaltea?

»Mundubagatik asko eñ badet,  
 »¿Millaka bider geyago  
 «Santuben eran Jainkoagatik  
 »Egin-bearraz ez nago?  
 » Bai, nere *Jesus*, zure graziyaz  
 «Alchatuko naiz gorago.

»Zure soldadu nazu gaurtandik  
 «Munduban naizan artian,  
 »Zure *gloria* beti begira  
 »Luzbel-darrekin pelian:  
 »Lagun bai, *Jesus*, lagun *María*  
 »Bizitza berri onian.

»Lagun bertatik, izan dezadan  
 «Bekatu damu berdiña,  
 »Eta *Jesus-en* izen daraman  
 »Lagun talde bat egiña,  
 »Zeron mesedez irichi-arte  
 »Zeru-goyenen erpiña.»

Euskaldun maite biyotzekoak,  
 Inazio-ren aldean,  
 ¿Ez gabiltza gu oraindik otzak  
 Zerubetako bidean?...  
 Ea bada gaur, bere antzera  
 Danok suspertu gaitean.

Oroi-gaitezen, jayotzaz ama  
 Naiz izan *Euskal-erria*,  
 Zeruba dala gure dierri  
 Betiko bizi-tokia:  
 Animak garbi, zuzen dezagun  
 Zeru-aldera guztia.